

# Lehen 5. Hezkuntza 6.

## Eremuak



HEZKUNTZA  
ARTISTIKOA



NATUR  
ZIENTZIAK




GIZARTE ETA  
HIRI BALIOAK

Mundua aldatzeko zuk ere balio duzu

---

## Helburuak, aukerak, ideiak eta kontzeptuak

1. Ingurumenean eragiten dute portaerak identifikatzea.
2. Birziklapenaren gainean ditugun ohituren inguruko hausnarketa pertsonala sustatzea.
3. Kontsumo arduratsua, hondakinen murrizketa eta haien birziklapenari bideratutako jarrerak bultzatzea.
4. Ontzien birziklapen-prozesua ezagutzea.



cristinaenea  
— fundazioa —



Mundua aldatzeko zuk ere balio duzu

---

## ● Jarduera hau zertarako da?

Naturan gizakiaren esku-hartzeak zeintzuk diren eta zein ondorio eragiten dituzten jakitea, hondakinen sorrerak zein ingurumen-arazo eragiten dituen eta nola arindu ditzakegun kontsumo arduratsua eta birziklapenaren bitartez.

## ● Zer behar dugu?

Ordenagailu bat, proiektorea eta pantaila edo arbel digitala.

## ● Zer egingo dugu?

"**Birziklatu, berrerabili**" laburmetraia ikusi eta ondoren, gure kontsumo-ohituren eta gure ingurua hobetzeko dugun erantzukizunaren inguruan hausnarketa egingo dugu.



### Jarraituko dugu?

Horma-irudi batean murriztu, berrerabili eta birziklatzeko ekintza-proposamenak idatziko ditugu. Ikastetxeko eremu komun batean jarriko dugu eta gainontzeko ikasleei ideiarik onena bozka dezatela eskatuko diegu. Ideia irabazlea gelan burutuko da.

Lehen 5.  
Hezkuntza 6.

2. jarduera

Eskolan eta etxean,  
hondakinak direan!

Mundua aldatzeko zuk ere balio duzu

---

## ● Jarduera hau zertarako da?


Hondakin mota ezberdinak ezagutuko ditugu, ontziak ondo bereizten ikasiko dugu, gero birziklatzeko, eta jardunbide egokiak ere ikasiko ditugu birziklapenaren ziklo osoan.

## ● Zer behar dugu?

"Zirt edo Zart" jarduerako fotokopiak, arkatza. Erantzunak ikusteko pantaila eta proiektore bat.

## ● Zer egingo dugu?

"Zirt edo Zart" jarduerako fitxak beteko ditugu. Zortzi ariketa bitartez, hondakinak birziklatzearen onurak ikusiko dira eta ikasleek dituzten iritziak bilduko dira.



### Jarraituko dugu?

Taldeak egingo dira eta gurasoei zuzendutako eskutitz bat idazteko guztien ideiak jasoko dira. "Gurasoen eskutitza" bete eta atzekaldean dauden proposamenak errepasatuko dira.